



UME ETA NERABEEN UDAL PLANA. BILBO

2018-2021

Ume eta Nerabeen Udal Plana. Bilbo. 2018-2021

BILBOKO UDALA

Zuzendaria:

Gizarte Ekintza saila



Aurkibidea

Hitzaurrea.....	4
Arau esparrua.....	5
Metodologia.....	8
Bilboko ume eta nerabeen egoeraren diagnostikoaren laburpena.....	9
Planaren esparru kontzeptuala.....	19
Ekintza plana.....	25
Kontu interesgarri batzuk:.....	25
Ekintza zerrenda:.....	28
UME ETA NERABEENTZAKO EKINTZA PLANA ILDO ESTRATEGIKOAREN ARABERA.....	31
UME ETA NERABEENTZAKO EKINTZA PLANA HELBURUAREN ARABERA (LANERAKO INFORMAZIOA).....	44
UME ETA NERABEENTZAKO EKINTZA PLANA 2030 AGENDA KO GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EMATEN DIETEN LAGUNTZAREN ARABERA.....	73
UME ETA NERABEENTZAKO EKINTZA PLANA HELBURU DUTEN ADIN TARTEAREN ARABERA	80
Baliabide ekonomikoak eta Planaren aurrekontuaren kalkulua.....	102
Planaren jarraipena eta ebaluazioa.....	105

Hitzaurrea

Ume eta Nerabeen Plan hau hiru helburugatik hasi gara lantzen:

Lehenik eta behin, udal sail guztiek eta, hortaz, Udal osoak hiriko ume eta nerabeekin duten konpromisoa ikusgai egin nahi du. Eta ez da soilik etorkizuneko konpromiso bat, udal sail guztiek orain arte egin duten lana jasotzen baitu azterketak, eta agerian uzten dute udalak ume eta nerabeekin duen konpromisoa ez dela oraingo kontua, denboran mantendu den lehentasun bat baino.

Bigarrenik, Plana alkate honen konpromiso pertsonal bat da, eta Gobernu Programaren lehentasunezko ekintza ildoetako hirugarrenean jasota dago, hain zuzen hezkuntzaz, prestakuntzaz, gazteriaz eta balioen garapenaz diharduen ekintza ildoan.

Hirugarrenik, Umeen Plan bat lantzea UNICEFek eskatzen dituen betekizunetako bat da Bilbori Hiri Ume-lagunaren aitortza emateko.

Hiri Ume-lagunen Programaren helburu orokorra tokiko gobernuen esparruan NBEk 1989an onartu eta Estatuak 1990ean berretsi zuen Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioaren aplikazioa sustatzea da. Zehatzago esanda, programa honek ume eta nerabeen tokiko planak sortzea pizgarritz hornitu nahi du, neskek eta mutilek udalaren bizitzan herritar moduan parte har dezatela sustatu, ume eta nerabeen eskubideen garapenari mesede egitera bideratutako orotariko udal politikak bultzatu gura ditu, eta herritarren elkarlana eta erakundeen koordinazioa dinamizatu, etengabeko hobekuntza eta politika horien garapena errazteko bideak direlako.

Plan hau Bilbon bizi diren 18 urte baino gutxiagoko pertsoneri orientaturiko udal ekintza guztiak jaso eta ordenatzeko tresna izateko jomugaz sortu da, arlo honetako esku-hartzearen ikuspegi orokorra eduki ahal izateko.

Plangintza dokumentu hau bat dator udal ekintza gidatuko duten lehentasun eta helburuak eratortzen diren aurretiazko diagnostikoan identifikatutako errealitatearekin. Lortu asmo ditugun jomugekin batera, Planak ekintza elementuak ere jasotzen ditu, eta, horregatik, ume eta nerabeei orientaturiko ekintzak programatzeko eta kudeatzeko tresna bihurtzen da. Azkenik, Planak bere eragina neurtu eta ebaluatu ahal izateko eta ekintzen, denboren eta baliabideen jarraipena egin ahal izateko adierazleak jasotzen ditu.

Bilbon bizi diren ume eta nerabeengan pentsatzeaz gain, Plana tresna erabilgarria izatea nahi dugu adingabeen hazkuntzaren, hezkuntzaren eta zaintzaren ardura dutenentzat, ume eta nerabeen arretarako diharduten instituzio eta erakundeetako profesional eta boluntarioentzat eta, hedaduraz, herritarrentzat, oro har.

Udal sail guztiei nire esker ona ematearekin batera, bereziki Gizarte Ekintza sailari, egindako lanagatik eta Ume eta Nerabeen Planaren barruan 2030 Agendaren helburuak zehazten izan duten konpromisoagatik, berriro aldarrikatu nahi dut Udalaren erabaki politiko argia Bilboko ume eta nerabeak hiriaren udal politiketan txertatzeko.

Juan Mari Aburto. Bilboko alkatea

Arau esparrua

Orain dela ia hirurogei urte, 1959ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Erakundearen Umearen Eskubideen Adierazpena aho batez onartu zuenetik, umeak eta nerabeak eta euren eskubideak babesteko helburuz maila guztietako legedi eta araudi ugari garatu izan da.

Legedia ateratzeko ardura izan duen erakundearen eta honen eskumenen arabera, eta legedia idatzi den denborazko eta lekuzko testuinguruaren arabera, araudi bakoitzak gai desberdinetan sakondu du.

Hala ere, gai honetaz onartutako ia lege guztiek izan dute helburu komun bat, hau da, adingabeen babesa, adingabeen eskubideena eta, denboran hurbilago dagoen garai batean, adingabeak eskubideen subjektutzat hartzea eta ez eskubideen objektutzat bakarrik, edota adingabearen goragoko mailako interesa ezartzea erakundearen jardueraren oro gidatu behar duen printzipio goren gisa.

Ondoren, ume eta nerabeen eskubideez jarduterakoan nazioartean, estatuan eta erkidegoan erreferentzia diren arau nagusiak jasotzen dira, pertsona talde honengana begira herri administrazioek egiten duten lan guztia gidatu behar duten arauak.

Nazioartekoak

Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Orokorrak New Yorken 1989ko azaroaren 20an onartu eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsia.

Umearen Eskubideen Europako Karta, Europako Parlamentuak 1992ko uztailaren 8an onartua.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Europako Parlamentuak, Ministroen Kontseiluak eta Europako Batzordeak 2000ko abenduan aldarrikatua eta 2007an berritua, 24. artikuluan "Umearen Eskubideak" jasotzen dituena.

Estatukoak

Espainiako Konstituzioa, 1978koa, 39. artikuluan botere publikoek familiaren eta, honen barruan, bereziki, umeen babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatu behar dutela jasotzen duena.

Adingabearen Babes Juridikoaren eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldatzeko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Umeak eta Nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatua, administrazio publikoei umeen arloan politika integralak garatzeko esparru bat ematen diena.

Erkidegokoa

1979an **Euskadiko Autonomia Estatutua** onartuaz (Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 LO), Euskadik eskumen eskusiboa bereganatu zuen gizarte laguntzan eta haur politikan, eta **Lurralde Historikoen Legearekin** (Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea) gizarte-laguntza eta haur- eta gazte-politika arloetan erakunde komunien legedia betetzea lurralde historikoei dagokiela ezartzen da.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea, abenduaren 23ko 3/2009 Legeak aldatua. Lege honen xedea lehen artikuluan dioenez hirukoitza da:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egoiliarak zein pasadizokoak diren haur eta nerabeei hau bermatzea: Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, Haurren Eskubideen Europar Gutunak eta zuzenbide-antolamendu osoak ezagutzen dizkieten eskubideak erabili ahal izango dituztela.
- b) Haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak edo haiek zaintzeko eta babesteko esku-hartzeak zein esparrutan egin behar diren ezartzea, haurrek eta nerabeek familiaren eta gizartearen inguruneetan behar duten garapena bermatzearen.
- c) Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko arloan eta arau-hausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta eginkizun horretan eskumenen eta erakundeen esparrua mugatzea ere.

Udalekoa

Tokiko mailan, udalerrien eskumenak **Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean** erabakitzen dira. Horietan ezartzen da, 17. artikuluan, udalerriei dagozkien eskumenak direla zenbait gairen antolamendua eta kudeaketa. Gai horiei ekiten die Bilboko Ume eta Nerabeen Udal Planak eta Plana lantzen parte hartu duten sailei (11) eta udal erakundeei (3) dagokie gai horien kudeaketa: *herritarren babesa, larrialdiak eta suteak; eremu publikoko elkarbizitza harremanak; titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera; ingurumena eta garapen iraunkorra; osasun publikoa; erabiltzaileak eta kontsumitzaileak; gizarte zerbitzuak; diru sarreren bermea eta gizarte inklusioa; pertsonen hiriko garraio zerbitzu publikoak; kirola, kirol jarduerak eta erabilera publikoko kirol ekipamenduak; euskara sustatu eta erabiltzeko politikak; kultura, jarduera kulturalak eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak; genero berdintasuneko eta ekitatea sustatzeko politikak; udal ondarea; herritarren parte-hartzea, gardentasuna, gobernu ona eta teknologia berrietara iristea; hiriko bide publikoak; mugikortasuna eta irisgarritasuna; establezimendu publikoak eta jolas jarduerak; immigrazio arloan gizarteratzea; gaztedi politikak; garapenerako lankidetzaren arloko politikak; irakaskuntzaren programazioan eta nahitaezko eskolaratzea betetzearen zaintzan parte hartzea, bai eta ikastetxe publikotarako eraikinak kontserbatu, mantendu eta zaintzea ere; tokiko garapen ekonomiko eta soziala.*

Plangintzako erreferentziak

Eremu honetan dagoen araudiaz gain, ondoren ume eta nerabeei orientatutako lanean orientazio edo lagungarri izan daitezkeen plan edo hitzarmen batzuk biltzen dira.

2013-2016rako Ume eta Nerabeen II. Plan Estrategiko Nazionala. 2013ko apirilaren 5eko Ministro Kontseiluaren Erabakiz onartua.

Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal ituna, Eusko Jaurlaritzak Arabak, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta EUDELeK 2018ko urtarrilaren 18an izenpetu zutena.


2008-2011rako Bizkaiko haurrentzako II. Plana. Gobernu Kontseiluak 2008ko apirilaren 8an onartua.

Metodologia

Plan hau partaidetzan landu dute Bilbo Hiri Ume-laguna Sail arteko Mahaia osatzen duten udal sail eta erakunde guztiek; horiek ume edo nerabeei (18 urte baino gutxiagokoei) zuzendutako programa edo zerbitzuren bat dute edo euren jarduerak eragin garrantzitsua izan dezake haien ongizatean. Konkretuki, gaur egun guztira 14 udal sail eta erakunde hauek dabiltza honetan: Gizarte Ekintza; Herritarrentzako arreta, Partaidetza eta Barrutiak; Berdintasuna, Lankidetzta, Bizikidetzta eta Jaiak; Obrak, Zerbitzuak, Hiri eraberritzea eta Espazio publikoa; Hiri Plangintza; Kultura; Euskara eta Hezkuntza; Gazteria eta Kirola; Herritarren Segurtasuna; Mugikortasun eta Jasangarri tasun Saila; Osasuna eta Kontsumoa; eta, gainera, Azkuna zentroa; Bilbao Kirolak eta Bilbao Musika erakundeak.

Hiru faseetan antolatu da:

- Lehen fasea informazioa jasotzeko izan da: diagnostikotik abiatuta erronkak eta helburu estrategikoak identifikatzea; ekintza bilketa eta Planaren printzipio gidariez, izaeraz eta egituraz hausnartzea.
- Bigarren fasea jasotako informazioa lurreratzeko izan da: ekintzei buruzko informazio zehatzagoa biltzea eta helburuekin ondo josten diren hausnartzea.
- Hirugarren fasea kontrasterako erabili da: sailkapenaren inguruko doikuntzak, koherentzia orokorra eta abar.



Hiru faseetan Sai arteko Mahai osoaren lan presentzialeko bilerak (3 saio) presentziarik gabeko lanarekin (sail eta erakunde bakoitzerako banan-banakako 3 ariketatatik abiatutako lan gidatua) konbinatu dira. Era berean, Talde Eragilearekin berariazko lan bilerak (3 saio) antolatu dira; taldekideak Mahaian dauden sailetakoko batzuk dira, hain zuzen, ume eta nerabeei begira egiten dituzten programa edo zerbitzuek euren jardueretan pisu handiagoa duten sailak, eta horietan izan dute prozesuaren ekintza garapena hurrerotik jarraitzeko ardura (Gizarte Ekintza saila, Osasun, Gazteria eta Kirol saila eta Mugikortasun eta Iraunkortasun saila).

Gainera, Planaren kontraste fasean udalerriko umeek ere parte hartu dute Hautzaroko eta Nerabezaroko Udal Kontseiluaren bitartez, gai honi eman dizkion berariazko lan saio bitan.

Bilboko ume eta nerabeen egoeraren diagnostikoaren laburpena

Plan honetan sartzen den eta ondoren aurkezten den diagnostikoa Bilboko Udalak Bilborako Hiri Ume-lagunaren aitortzea lortzeko prozesuan beste ekintza batzuen artean landutako beste zabalago baten laburpena da¹.

Egoeraren azterketa hau eskubideen, bizi kalitatearen eta ume eta nerabeen ongizatearen ikuspegi zabal batetik abiatuta egin da, eta horregatik dimentsio askori buruzko informazioa ematen du: demografiak, familiak, osasunak, hezkuntzak, ongizate materialak, arrisku egoerez edo egoera ahulez, kulturak, aisiaz eta astialdiak eta inguruneak.

Metodologiaren mailan, txosten honek bai informazio kuantitatiboa bai kualitatiboa konbinatzen du, kasu bietan iturri ugari erabiliaz.

Horretarako, datuak bildu eta sistematizatzeko prozesu bat egin da, bai udal iturriena bai kanpoko beste iturri batzuenak, eta horiei esker eman ahal izan dira ume eta nerabeek udalerrian duten errealitateari buruzko datu kuantitatiboak.

Halaber, errealitate honetan sakondu ahal izateko balio izan duen informazio kualitatiboa ematen du diagnostikoak, eta informazio horretan protagonisten euren ikuspegiari eman zaio lehentasuna. Horrela, nahiz eta diagnostikoan hainbat eragilek hartu duten parte (familiak, gizarte erakundeak...), egindako lanaren pisurik handiena udalerriko ume eta nerabeen hausnarketa batzuek izan du.

Gorago esandako zortzi dimentsioetako bakoitzerako jasotako informazioa antolatzerakoan jarraitu den egitura ondorengo hau da:

1. Dimentsio bakoitzari lotutako zenbait gairi buruzko informazio kuantitatiboa.
2. Informazio kualitatiboa, galdetu zaien eragileek dimentsio bakoitzaz esandakoa eta eman duen balioa jasotzen duena.
3. Dimentsio bakoitzaren diagnostikoan jasotako ideia giltzarriak eta/edo identifikatutako kezka nagusiak.


Demografia

Bilbon bizi diren umeak eta 18 urte baino gutxiagoko nerabeak 50.112 dira, Bilboko biztanleriaren % 14,5. Biztanleria guztian duen pisu urriak zerikusia du biztanleria zahartzearekin, EAEn orokorra den errealitatearekin, eta **jaiotza tasa Europako batez bestekoaren azpitik** egotearekin (gure udalerrian 2014an 8 ume jaio ziren 1.000 biztanleko). Hori, aldi berean, amatasun eta aitatasun proiektuak geroraten dituen gazte jendearen **emantzipazioarako** zailtasunekin lot daiteke.

¹Dokumentu osoa esteka honetan aurki daiteke:

<http://umeenhiria.bilbao.eus/es/diagnostico/resultados>

Gaur egun udalerrian bizi den ume eta nerabe jendearen % 7,74 **atzerriko jatorrikoa** da, eta begiz jotzen da 16 urte baino gutxiagoko 1.600 adingabe inguru izan litezkeela **ijito etniakoa** (% 3,58).



Familia

18 urte baino gutxiagoko biztanleak bizi diren 34.175 etxe daude. Gehienak familia nuklearretan bizi dira, hau da, bikote seme-alabadunek osatzen dituztenetan, baina bestelako familia motak gero eta ugariagoak izaten ari dira. 18 urte baino gutxiagoko adingabeen % 12,69 (6.400) **guraso bakarreko** etxeetan bizi da, gehienak emakume bat buru dutenak dira.

Etxeen talde berreginak gero eta gehiago dira, bigarren edo ondorengo ezkontza edo bikotea egin dutenak (EAEn mendeko ondorengoak dituzten familia nuklearren % 3,8), seme-alaba harremana bikoteko kideetako bakar batekin duten seme-alabak bizi daitezkeenak (familia nuklearren seme-alaben % 2,7 ez da bien seme edo alaba).

Bizkaian seme-alabak dituen familia nuklear baten batez besteko tamaina txikitzen joan da azken urteotan eta 3,56 kide ingurukoa da, baina Bilbon adingabeak dituzten ia sei familiatik bat (% 15,63) **familia ugaria** da. Horietan udalerriko biztanle adingabeen % 28,15 bizi da (14.200).


Orokorrean, familien barruan harremanak eta komunikazioa demokratizatzen joan direla ematen du, Bilbon galdetu zaien 8 eta 18 urte bitarteko biztanleen % 74,9k sentitzen du bere gurasoek **etxean zerbait erabakitzen dutenean bere iritzia** kontuan hartzen dutela.

Hala ere, aitek eta amek nahi luketena baino denbora gutxiago ematen dute umeak hazten. Azterlan batzuek adierazten dutenez, erdiak ere ez dira (% 48) astero gurasoekin **hitz egin ahal izateko aisiako uneak** aita-amekin ematen dituzten EAeko 12 eta 18 urte arteko biztanleak.

Gutxi gorabehera euskal biztanleria landunaren herenak (%31,2), seme eta alaba adingabeak zaintzeari dagokionez, **laneko eta familiako bizitzak uztartzeko zailtasun** handiak dituela dio. Biztanleria landunaren 15 urte baino gutxiagoko seme-alaben ia erdiak ez ditu zaintzen ez aitak ez amak eskola orduetatik kanpo (% 48,9). Gehienak ordaindu gabeko senide edo pertsonaren batek zaintzen ditu, beste batzuek ikastetxeko egonaldia luzatzen dute eta batzuk **bakarrik** gelditzen dira.

Beste alde batetik, emakumeen eta gizonen artean zaintza ardurak ez dira berdintasunez banatzen. Seme-alabak zaintzeko lana uzteak edo lanaldia murrizteak gehienbat emakumeek hartzen duten aukera bat izaten jarraitzen du. 2015ean baiezkoarekin ebatzi ziren **lanaldi-murrizketa eta lan-utzialdi** espedienteetan, hamarretik bederatzi (%92,52) emakumeenak izan ziren.

Orokorrean, familiek nolabaiteko kezka ere agertzen dute gatazka egoera batzuk kudeatzeko moduz eta seme-alaben babesa eta beregaintasunean heztea orekatzeko moduz.



Osasuna

Ohiko adierazleek Bilboko haur eta nerabeek, oro har, osasun ona dutela azpimarratzen dute. Bilbon **umeen hilkortasun** tasa (urtebete baino gutxiagokoen 2,16 heriotza, bizirik jaiotako 1.000 umeko) 2014an estatukoaren eta Europakoaren azpitik geratu zen, eta 15 eta 24 urte bitarteko bizkaitarren % 52,4k **bere osasuna oso ona dela uste du**.


Hala ere, ikusgai egin behar da biztanleriaren zati handi batek mota askotako zailtasunei egiten diela aurre. 15 urte baino gutxiagoko 100 adingabetik 2 inguru dira desgaitasunen bat aitortuta dutenak. Gainera, 14 urte baino gutxiagoko euskal adingabeen % 0,24k **buru osasuneko** gaitzak (depresioa, antsietatea eta abar) dituela uste da eta 15 eta 19 urte bitarteko euskal biztanleen % 13k adierazten du arazo psikologikoak izan dituela (antsietatea, estresa, depresioa...).

Gorputz ariketa biztanle gazteen jardueran orain dela urte batzuk baino handiagoa dela badirudi ere, azpimarratzekoa da 2 eta 17 urte arteko euskal biztanleen % 25,52k gehiegizko pisua duela eta konkretuki % 6,97k **gizentasuna** duela (prebalentzia handiagoa da mutilen nesketan baino). Gure autonomia erkidegoan estatuko batez bestekoa tasa baino apalagoa bada ere (Espainiako adingabeen % 9,56k gizentasuna du), kopurua gero eta kezkarriagoa da, azken bost urteetan ehunekotan ia puntu bi gora egin duelako.

Kezken artean sexu jokaerekin eta substantzien kontsumoarekin zerikusia duten jokabide arriskutsuak ere badaude. Alkoholaren kontsumoan azken 5 urteetan beheranzko joera nabaritu bada ere, ezin da ahaztu 12 urtetik gorako unibertsitateaz kanpoko eskola umeen erdiak baino gehitxoagok (% 55,3) **asteburuetan alkohola hartzeko ohitura duela**, eta % 31,6 gehiegizko edalea edo edale arriskutsua dela asteburuetan.

Kalamuaren kontsumoa ere gutxitzen joan da, baina azken urtean **kontsumitu** duten 15 urtetik 16ra bitarteko euskaldunen ehunekoa (% 43) Espainian (% 22) eta Europan (% 13) izan dena baino askoz handiagoa da.

Tabakoaren kontsumoa, ostera, apur bat goraka doa, 15 urtetik 16ra bitarteko euskal nerabeen % 31k **erretzeko ohitura** du, beraz Europako batezbestekoa (% 28) baino askoz handiagoa dugu.



Hezkuntza

2014/2015 ikasturtean **47.965 ikasle zeuden matrikulatuta** Bilbo udalerrian kokatutako unibertsitatez besteko erregimen orokorreko ikastetxeetan (Bilboko ume eta nerabeen % 4,28 inguru udalerritik kanpoko ikastetxeren batean matrikulatuta egon litekeela jotzen da).

Horietako gehienek (%67,52) itunpeko ikastetxe pribaturen batean ikasten dute, eta 10etik 4 bat dira ikastetxe publikoren batean ikasten dutenak (% 39,67). **Matrikulazio publikoen** pisua Bilbon (% 39,67) EAEkoa (% 50,79) baino ere apalagoa da, eta hau ere estatukoa (% 67,52) baino askoz beherago dabil.

Ikasleen % 48,43k irakasgai guztiak euskaraz ikasten ditu (**D eredua**), Bizkaiaren (% 56,63) eta EAEn (% 61,85) batezbestekoen azpitik, baina ikasle euskaldunen pisua handiagoa da zenbat eta beherago adinean (Haur Hezkuntzan eta Lehen Mailakoan tasak % 61,22ra eta % 56,53ra egiten du gora, hurrenez hurren).

Ikastetxeetan Bilbon jaiotako neska-mutilek **atzerriko jatorria duten ikasleekin** batera ikasten dute (ikastetxe pribatuetan duten pisu erlatiboa % 6,79 da eta ikastetxe publikoetan % 11,71raino igotzen da). Halaber, desberdintasun funtzionala duten neska-mutilekin batera daude, izan ere **hezkuntza premia bereziak** dituzten ikasleen % 84 ikastetxe arruntetan txertaturik daudela zenbatesten baita; estatuko batezbestekoaren (% 79,6) gainera dago tasa hori.

2 urterekin eskolaratzea gure autonomia erkidegoan gora doa etengabe eta 2013-2014 ikasturtean % 91,61era iritsi zen, duela hamar urte geneukan tasa (% 74,3) baino eta orain estatuak duena (% 52,1) baino askoz gorago.

Abandonatze goiztiarraren euskal tasak ere onera egin du azken urteetan. 2015ean 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren % 9,7k gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua zeukan eta ez zebilen inolako prestakuntzarik jasotzen. Tasa estatukoaren (% 20) eta Europakoaren (%11) azpitik dago.


Eskola absentismoari dagokionez, *Eskola-absentismoa Prebenitzeko, Detektatzeko eta Kontrolatzeko Programako* (PAE) datuen arabera, Bilboko 6 eta 16 urte bitarteko eskola umeen % 1,69k jasan lezakeela kalkulatu da.

Aitzitik, eskolako errendimenduak bereganatzen ditu gaur egun kezka nagusiak. Hamar euskal ikasletik zazpi **bigarren hezkuntza amaitzean aurrerapen egokia** badute ere, hau da, ikastaldiari dagozkion irakasgai guzti-guztiak gainditu badituzte ere, azken PISA txostenaren emaitzek nolabaiteko atzerapena erakusten dute hiru urte lehenagoko emaitzekin alderatuta, ebaluatutako hiru gaitasunetan (matematika, zientziak eta irakurketa).

Zehazki ikasleen % 17,4k maila ezegokiak ditu **irakurketa proban**, eta, ELGaren batez besteko maila gainditzen badu ere, ez da heltzen 2020rako Europak duen helburura (maila apaleko ikasleak <% 15).

Azterlan honetan biltzen diren datuek adierazten dutenez, **parte hartzea** ere izan liteke hobetu ez den gai bat ikastetxeen barne bizitzan. 8 eta 18 urte arteko ikasleen laurdena baino apur bat gehiagok bakarrik azaltzen du beren iritziz irakasleek nahikoa galdetzen dietela iritzia gelan zer egin edo ibilaldia nora antolatu erabakitzen dutenean.

Beste alde batetik, familiek aitortu egiten dute, orokorrean, hezkuntza komunitatean duten inplikazioa hobetu daitekeela, eta hezkuntza ez-formalaren arlotik edo osasuna, gizarte zerbitzuak eta abar bezalako beste batzuetatik esku hartzen duten heziketa-eragile sozialek ikastetxeekin koordinazio handiagoa izatea eskatzen dute, funtsezkoak diren gaietan aurrera egiteko, esate baterako, balioetan, premien detekzioan, erantzunen koordinazioan eta abar.



Ongizate materiala

Bilbon dagoen **batez besteko familia errenta** 2013an 33.876 €-an zebilen (33.717 € batez beste Bizkaian), eta desberdintasun handiak daude auzotik auzora. Batezbesteko handiena duen auzoa Abando (53.755 €) da, gero Indautxu (52.059 €) eta Castaños (44.890 €), eta kontrako muturrean Iturrigorri-Peñascal (19.574 €), Uretamendi (19.629 €) eta Otxarkoaga (19.664 €) daude.

Langabezia eta lan prekarietatea dira familien errenta mailan dauden diferentzietako batzuk azaltzen dituzten faktoreak. Lanbidek 2015eko abenduan udalerrirako erregistratu zuen **langabezia** indizea % 17,73 izan zen, Bizkaikoa (% 15,32) eta EAEkoa (% 14,1) baino apur bat handiagoa.

Bilboko biztanleen % 11,4k ez dauka nahikoa diru sarrera oinarrizko beharrei aurre egiteko (elikadura, etxebizitza...), eta horrek esan nahi du EAEko (% 8,2) batezbestekoaren gainetik dagoela **matenu pobrezia**ren arrisku tasa.


Garrantzitsua da kontuan izatea pobrezia ez diola berdin eragiten biztanleria guztiari, **egoera ahulenean dauden** taldeek indize bereziki altuagoak daukate, besteak beste: 14 urte baino gutxiagokoak dituzten familiak, guraso bakarreko familiak (eta bereziki ama familiakoa buru dutenak) eta atzerriko pertsona bat edo ikasketarik gabeko pertsona bat edo 35 urte baino gutxiagoko pertsona bat buru duten familiak.

Europa 2020 Estrategiaren esparruan gizartetik baztertzeko arriskua dimentsio anitzeko ikuspuntutik neurtzearen alde egin da, hau da, pobrezia egoerak ez ezik, lan intentsitate apaleko egoerak eta oinarrizko ondasun edo zerbitzu batzuk ezin jaso izatea ere kontuan hartuz. **AROPE** tasa honetatik eskura dauden azken datuek adierazten dutenez, 2015ean 16 urte baino gutxiagoko euskaldunen % 21,8 gizartetik baztertzeko arriskuan zegoen, aurreko urtetik ehuneko horrek 3 puntu egin du gora eta bost urte lehenago baino 10 puntu gorago dago, baina hala ere estatuko (34,4) eta Europako (27,7) batezbestekoen azpitik jarraitzen du.

Hainbat azterlanek aitortzen dute gure autonomia erkidegoko Diru-sarreraren Berme Sistemak eta Gizarte Zerbitzuen Sistemak duten balio moteltzailea krisaldiaren ondorioen aurrean, eta EAEko tasak beste lurralde eremu batzuetakoak baino apalagoak izatea neurri batean azaltzen duten faktoreak direla. 2016ko irailean, 18 urte baino gutxiagoko biztanleak zituzten 4.307 familiak jasotzen zuten **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta** (adingabeak zituzten familien %12,6) eta 15

urte baino gutxiagoko 6.130 adingabek jasotzen zuten laguntza hori. Gainera, 18 urte baino gutxiagokoak dituzten 1.903 familia daude Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituztenak, eta **guraso bakarreko unitateentzako udal subsidioa** jasotzen duten guraso bakarreko 2.338 familia (honelako familien % 46,76).

Etxebizitza *Haurraren Eskubideen Konbentzioak* aipatzen duen ondasun materialetako bat da, haurrek euren garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialerako bizitza maila egokia izateko duten eskubidea bermatzeaz diharduenean. Etxebizitza gaur egun familien gastu nagusietako bat da eta etxebizitzagatik familiek duten zorpe maila handia da, beraz krisi egoeretan ugaldu egiten dira ez ordaintzeak eta kaleratzeak. 2015ean Bilbon 559 **kaleratze** judizial betearazi ziren, aurreko urtean baino % 23 gehiago.



Arrisku egoerak edo egoera ahulak

0 eta 18 urte bitarteko 11.564 pertsona egon ziren 2015ean Bilboko Udalaren **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen (OGZ)** kasu aktiboetan inplikaturik, hau da, Bilbon bizi diren 10 ume eta nerabetik 2 inguru.

Urte horretan, arrisku egoerako adingabeak zituzten 1.070 familia artatu ziren OGZetako **gizarte eta heziketa izaerako eta izaera psikosozialeko** udal baliabideetan (udalerriko 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak zituzten familia guztien % 3,13). Kasu berriak % 27,06 hazi ziren aurreko urtearekin alderatuta, eta baliteke horrek egoera ahulak ugaldu direla adieraztea, baina litekeena da, era berean, gizarte baliabideetara iristeko modua hobetu delako eta zerbitzu horiek behar duten biztanle gehiagorengana heltzen ari direlako izatea.

Haurren Eskubideen Konbentzioak argi ezartzen du estatuek neurriak hartu behar dituztela umea kalte, abusu fisiko edo mental eta abar guztietatik babesteko. Konkrétuki 2015ean **babesgabetasun arrisku larrian** zeuden adingabeen 83 espediente deribatu ziren Aldundiaren Haur Zerbitzura babes neurriak hartzeko.


Era berean, urte horretan Ertzaintzak 232 bat **eraso** erregistratu zituen ume eta nerabeen aurka Bilbon, eta horietarik erdiak inguru (horien % 48,27) familia giroan izan ziren. Gainera, gogoratu egin behar da genero indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabak ere horrelako indarkeriaren biktima direla, askotan biktima ikusezinak. Konkrétuki Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuak (SMUS) 82 adingabe erregistratu zituen **genero indarkeriaren** biktima, azken urtean.

Halaber, emakumeen aurka indarkeria gauzatzen duten nerabeen ikuspuntutik eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna bultzatu eta horretan sentsibilizatzen aurrera jarraitu beharri lotuta ere azter daiteke gertakari hau.

Bestalde, amei, aitei edo bestelako senide bizikideei eraso egiten dieten nerabeek gauzatzen duten indarkeriari ere arreta jar dakioko. 2015ean guztira Bilboko 28 familiak eta 30 nerabek (% 2015ean guztira Bilboko 28 familiak eta 30 nerabek (%

50 mutilak eta % 50 neskak) Bizkaiko Foru Aldundiaren *Familian esku hartzeko programa, gurasoen aurkako indarkerian espezializatuan* hartu zuten parte.

Halaber, batez ere eskolako bizikidetzaren esparruan, berdinen arteko tratu txarraren kezka handitu egin da. Horretaz argitaratu diren azken azterlanen arabera, Lehen Hezkuntzako bost ikasletik batek (% 21,7) baieztatzen du eskolan sarritan jasan duela nolabaiteko **tratu txarra bere berdinak direnengandik** (2009an % 16,9 ziren). DBH ikasten duten neska-mutilen % 38k baieztatzen du ikusi egin duela eskolan ikaskideren bat baztertzen bere sexu orientazioagatik edo mutil edo neska izateagatik. Lehen Hezkuntzako ikasleen % 11k **ciberbullying** jazarpena jasan zuen 2012an (beti, askotan edo batzuetan) eta ia % 3 molestatu, mehatxatu edo umiliatu zuten sarritan Internet bidez (beti edo askotan).



Kultura, aisia eta astialdia

Azterlan honetan aplikatu den inkestan jaso diren azken datuen arabera, Bilboko 8 eta 18 urte arteko biztanleriaren % 76,2k **kirola** egiten du gutxienez astean 3 egunez, baina emaitzek desberdintasun argiak erakusten dituzte sexuaren eta adinaren arabera: mutilek gehiago eta adin gutxiagokoek gehiago.

Konkretuki 2015ean Bilbon **Bilbao Kirolak kiroldegi sareko abonatuak** ziren 14 urte baino gutxiagoko 16.225 pertsona zeuden (% 47,69 neskak), hau da, gutxi gorabehera adin horretako 10 bilbotarretik lau, udalaren kiroldegi sarean abonatuta zeuden.

Bilbon 0 urtetik 14 urtera bitarteko 1.000 biztanleko 2,99 **ume jolasen zona publiko** daude, gutxi gorabehera kalkulatuta.

Bilboko haurren ia bi herenek (% 63,8) **nahiko edo oso maiz erabiltzen dituzte hiriko aire zabaleko plazak, parkeak, kirolguneak edo jolas guneak** kalean jolasteko edo kirola egiteko. Gehiengo handi batek (gutxi gorabehera hamarretik zazpik) leku horiek **oso edo nahiko ondo zainduta daudela** irizten dio eta uste dute **behar duten guztia** dutela gustura egoteko, jolas egiteko eta ondo pasatzeko. Hala ere, adina aurrera joan ahala, leku horiek erabiltzen dituzten biztanleen proportzioa eta horiek gogobetarik daudenena jaitsi egiten da. Jaso diren eskarrietan azpimarratzekoa da asteburuetan auzoan lagunekin modu antolatua gabe denbora eman, jolastu edo kirola egin ahal izateko leku "estaliak" aipatzen direla.

Aurreko kopuruak oso onak izan arren, garrantzitsua dirudi begien bistatik ez galtzea azken urteotan aisia ohitura sedentarioek apurka-apurka pisua hartu dutela. Euskal ume eta nerabeek batez beste 2 ordu ematen dituzte egunean telebista, bideoak eta abar ikustera eta ordu eta erdi aparatua elektronikoekin jolas egitera, **pantaila baten aurrean**, askotan Tuenti, Facebook, Twitter, Messenger eta abar bezalako sare sozialak erabiltzeko (hiru eskola umetik ia bik egunero erabiltzen dituzte sare sozial horiek).

Azken urteotan hazi egin den beste fenomeno bat adiskideen lokalak dira. Eskolara dabiltzan euskal biztanleen % 20,7k bere asteko denboraren zati handi bat honelako **lokaletan** ematen du; bost urte lehenago (2006an) % 17,2 inguru zen kopurua.

Udalerriko **aisia eskaintza** dela eta, inkesta egin zaien 8 eta 18 urte arteko hiru pertsonatik gutxi gorabehera batek uste du eskaintza zabala dela eta nahiko gogobetarik agertzen da, batez ere 8 eta 10 urte bitarteko gaztetxoak (talde honetan % 80k balioespen positiboa egiten du). Balioespen epelagoa egiten dutenek batez ere informazio gehiago eskatzen dute, eta jarduera erdi antolatua, aukera eman diezaien euri beste pertsona batzuekin topo egiteko eta ikasteko; era berean, interesa dute eskaintzaren diseinuan protagonismo handiagoa izateko eta parte hartzeko.


Familiek, berriz, ekintza batzuk egin ahal izateko hobekuntzak egin beharra iradokitzen dute (prezioa, tokiak, betekizunak, desgaitasunak dituzten pertsonentzako egokitzapena...), eta balioak lantzen diren leku "seguruak" ematen dituen aisia eskaintzan interesatuta agertzen dira.

Bestalde, 12 urte baino gehiagoko hamar eskola umetik seik edo esaten dute **kultura ekintzak** egiten dituztela, zinemara, kontzertuetara, museoetara, erakusketetara, antzerkietara eta abar joatea bezalakoak, gutxienez hilean behin, askotan ikastetxeetan beretan programaturiko ekintzen esparruan. Hala ere, beste azterlan batzuek abisua ematen dute nerabearoan ekintza kulturaletan parte hartzearen indizeak askoz ere apalagoak direla eta; horrela, bada, 2012an esate baterako, 15 eta 19 urte zituztenen artean % 21 bakarrik joan zen museora azken hiru hilabeteen eta soilik % 52k irakurri zuen libururen bat aisiagatik azken hilabeteen.

Irakurtzeko ohiturak aipamen berezia merezi du, onura handiak dituelako gaitasunak eskuratzeari lotuta ezagutzak garatzeko, potentzial pertsonala handitzeko eta, azken batean, gizartean parte hartzeko. Azpimarratu behar da, azken urte bietan hobekuntza nabarmena izan bada ere, 11 eta 17 urte bitarteko euskal ume eta nerabeen % 23k ez duela inoiz edo ia inoiz irakurtzen bere astialdian.

Era berean esan daiteke musikarekin egunero harremana izateak **onura ugari dituela ume-umetatik mugimendua eta adimena garatzeko**. 2015ean udalerriko **Udal Musika Eskolan** 8 eta 18 urte arteko 745 pertsona zeuden matrikulatuta (hori adin horretako biztanleen % 2,66 da).

Azkenik, gazteenen arteko euskalduntze maila beste adin talde batzuetako biztanleena baino askoz handiagoa dela esan beharra dago. Horrela, bada, Bilbon euskaldunen batez besteko pisua % 22,9 izanik (Bizkaiko biztanleen % 31,2 euskalduna da), 10 eta 14 urte bitarteko lau pertsonatik hiru **euskaldunak** dira (% 75,26). Kasu honetan euskararen erabilera normalizatzea lortzea da erronka.



Bilbok **parkeek, lorategiek eta berdeguneek** okupaturiko hiri-lur azaleraren ratio apala dauka, % 13,3 jotzen duena. **Eskualdean** batez besteko ehunekoak are txikiagoa bada ere, % 11,46 inguruan baitabil, kontuan hartu behar da Donostiako umeek jolas egiteko erabil daitezkeen aire libreko guneen ratioa % 59,93 dutela eta Gasteizkoek % 16,9.

16 urte baino gehiagoko bilbotar biztanleriak gogobetetasun handia agertzen du hiriko auzoetan izan daitezkeen **bizi kalitatea** dela eta (honi buruzko azken azterlanak 10etik 7ko puntuazioa erakusten du), eta % 11,1 apal batek uste du **barrera arkitektonikoen arazoa** udalerrian handia dela.

Datu horiekin bat, udalerriko ume eta nerabe jendeari egin zaion galdera sortan ikusten denez, hamar neska-mutikotik ia bederatzik uste dute Bilbo **hiri atsegina dela** eta % 74k hiri dibertigarria dela. Puntuaziorik onenak ematen dituztenak Deustuko, Abandoko eta Uribarriko ikasleak dira, eta kritikoen azaltzen direnak Errekaldeko ikasleak dira. Hamarretik ia seik (% 58,4) kaleak **garbi eta zainduta** daudela ikusten dute.

Hirutik bik diotenez, **hiria oso edo nahiko segurua da**. Gehienek (lautik hiruk) uste dute gauez argitasun nahikoa edo asko dagoela eta lasaitasuna eta segurtasuna sentitzen dute Bilboko kaleetatik ibiltzen (neskak apur bat gutxiago), baina ia erdiek (% 44,4) uste dute beribilek ez dituztela nahikoa errespetatzen oinezkoak. Gainera, inkesta egin zaien 18 urte baino gutxiagoko biztanle kopuru handi samarra dago hiria nahikoa edo oso **zaratatsua** sumatzen dutenak (% 32,8).

Inkesta egin zaien hiru umetik bik metroa, autobusa edo tranbia nahikoa edo asko erabiltzen dute, eta erabiltzen duen **garraio publikoarekin** nahiko edo oso gogobeteta agertzen da. Hala ere, 18 urte baino gutxiagoko bost pertsonatik batek bakarrik adierazten du **bizikleta** nahikoa edo asko erabiltzen duela Bilbon eta % 48,1ek oso gutxi erabiltzen duela dio.

Balioak eskuratzeari dagokionez, datuek adierazten dutenez azken urteetako bilakaera positiboa izan bada ere, bai familiak bai hezkuntzako eragileak bereziki kezkatuta ageri dira aniztasun edo bestelakotasunari, genero berdintasunari, kontsumo arduratsuari eta abar errespetu handiagoa izatea lortzearekin. Eskolara dabiltzan biztanleen % 16k ikasketa lagun atzerriko etorkina edukitzeari eta % 30ek **ijitoen etniako** pertsona bat edukitzeari nolabaiteko errefusa azaltzen diola gogoratu behar da.

Gizartean parte hartzea sustatzeko ez da bakarrik behar horretarako bideak eskaintzea, jarrera kritikoa, beregaintasuna, proaktibotasuna era abar sustatzea ere garrantzitsua da. Azterlan batzuek begiz jotzen dutenez, EAEko 12 eta 18 urte arteko eskola umeen % 14,7k gutxienez hilean behin hartzen du parte gazte elkarteetan edo gizarte mugimenduetan.

Azterlan honen esparruan egin den azen inkestak agerian uzten du Bilboko 8 eta 18 urte bitarteko biztanleen % 83k nahi lukeela **Udalak** kontuan hartzea eurek pentsatzen dutena hiriari buruzko erabakiak hartzerakoan, eta % 31,2k uste duela gaur egun oso gutxi hartzen dela kontuan euren iritzia.

Gainera, inkesta egin zaien hamarretik bik Konbentzioan aitortzen zaizkion eskubideak gutxi edo oso gutxi ezagutzen dituela egiaztatu da, eta ezjakintasun maila 15 urte baino gehiagokoan artean handiagoa dela dirudi.



Planaren esparru kontzeptuala

Planaren izaera

Ume eta Nerabeen Plana Bilboko 18 urte baino gutxiagoko pertsoneri orientaturiko udal jarduera guztiak jaso eta antolatzeko tresna izateko sortu da; bai udal sail guztiak dagoeneko garatzen ari diren jarduerak bai datozen urteetan gehitzea aurreikusita dagoenak jasoko ditu. Plan honek eremu honetan esku hartzeko eta koordinazioa eta kudeaketa hobetzeko ikuspegi orokorra emango du.

Planaren indarraldia 2018-2021 izango da eta indarrean dauden beste batzuekin bat etorri beharko du, esate baterako Udal Gobernu Planarekin eta Nazio Batuen Erakundearen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendarekin.

Norentzat den

- Bilbo udalerrian bizi diren ume eta nerabeentzat.
- Gurasoentzat eta adingabeen hazkuntza, hezkuntza eta zaintzaren arduradunentzat.
- Ume eta nerabeen arretarako diharduten instituzio, erakunde eta elkarteetako profesional eta boluntarioentzat.
- Hiritarrentzat, oro har.

Xedea eta helburuak

Planaren **xedea** Bilboko ume eta nerabeei orientaturiko udal ekintzaren koordinazioa eta kudeaketa, talde horren eskubideak beteko direla eta parte hartuko duela bermatzen lagunduko duen lan eta kudeaketa egitura komuna ezarriaz, hobetzea da.

Plan hau, era berean, Udalak ume eta nerabeekin duen konpromiso etengabearen, biztanleriaren sektore honen beharrei erantzuteko duen borondatearen eta helburu horrekin egiten dituen ekintzen etengabeko ebaluazioaren isla da.

Ume eta Nerabeen Plan honen **helburuak** hauek dira:

1. Bilboko ume eta nerabeei zuzendutako jardueraren lan eta kudeaketa sistema bat sortzea, udal mailan partekatua, gai honetako ezagutza elkarri emateko, egin beharreko ekintzak koordinatzeko eta ekintzak ebaluatzeko balioko duena.
2. Umeak eta nerabeak eta udal jardueraz eurek duten ikuspegia zeharretara erantsiko dituen lan kultura bat bultzatzea.
3. Adingabe guztiak eskubide guztiez baliatzea erraztea, hainbat arrazoigatik (ekonomia, generoa, bestelakotasun funtzionala, kultura, jatorria...) egon daitezkeen desabantailazko edo zailtasuneko egoerak konpentsatzen edo berdintzen saiatuz.
4. Umeen eta nerabeen partaidetza aukerak areagotzea euren komunitatean eta euren hirian duten rol aktibo eta protagonista aitortzen den neurrian.
5. Familiei seme-alaben hazkuntzan eta hezkuntzan laguntzea hainbata ekintzaren bitartez.

6. Bilbon umeeekin eta nerabeekin lan egiten duten gainerako eragileekiko elkarlana hobetzea.

Oinarrizko balio edo printzipioak eta jarduteko irizpideak

Oinarrizko balio edo printzipioak

Bilboko Ume eta Nerabeen Plana martxan jartzea gidatu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzerakoan, *Bilbao Balioen Hiria* prozesuaren emaitza izan den *Vademecum* dokumentua hartu da erreferentzia. Hortik abiatuta, ume eta nerabeen errealtatera egokitzen eta Planak Udalarari bere rol protagonista nola eragiten dion aztertzen jardun da. Hauxe izan da emaitza:

1. [Giza Eskubideen \(GE\) errespetua](#)

Ume eta nerabeek izate hutsagatik duten duintasunaren aitortzan oinarritzen da Plana, eta hori defendatzera bideratuta dago. Aitortza horretan sartuta daude adingabeak duintasun horren arabera bizi ahal izateko behar diren gizarte, ekonomia eta kultura baldintzak. Halaber, adingabearen balioaren kontzientzia hartzen du, eta pertsona aitortzen ditu, hau da, pertsonaren helburu izaera.

Horrek esan nahi du errealtate sozial eta politiko oro ume eta nerabeen giza duintasunaren defentsaren mendean egon behar duela, eta Giza Eskubideak (GE) gure ordenamendu juridikoaren lege hierarkiaren gailurrean kokatu behar direla.

Giza Eskubideak berdinak dira pertsona guztientzat, ez dago eskubide desberdinik pertsona batzuentzat, besterendu ezinak dira, inori ezin zaizkio kendu, eta unibertsalak dira, pertsona guztiek egoera guztietan dituzte.

Adingabeen kasuan, GE deklarazio unibertsalaz gain, garrantzi berezia hartzen du 1989an NBEk onartu zuen *Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioa* aipatzeak, nahitaezkoa baita.

Eremu honetan, Udalarari dagokio, bere eskumenen barruan, bere herrian bizi diren adingabe guztien funtsezko eskubideak bermatu eta sustatzea, eta rol bereziki garrantzitsua du Udalak beharrezko baldintza sozioekonomiko eta kulturalak bultzatzen, ume eta nerabe guztiak, beren gorabeherak gorabehera, dagokien duintasunaren arabera bizi daitezen.

2. [Elkartasuna](#)

Plana, gainera, elkartasunean oinarritzen da, eta elkartasuna ulertzen du, gizarte bateko kideok elkarrekin harremanak izateko dugun moduaren ondorio diren injustizia egoerak izanik, horren erantzukizuna denona dela aitortuz eta horren kontzientzia hartuz, Giza Eskubideen aplikazioaren bidez egoerei aldaketa bilatzeko. Ildo horretan, ahultasunezko edo desabantailazko egoeran dauden banakoen eta gizataldeen alde jokatzeko komunitate politikoarentzako agindu bat da elkartasuna, kasu honetan adingabeen alde, kaltea gertatzea, edo betiketzea, saihesteko.

Elkartasuna pertsona guztiei dagokien duintasunaren aitortzan oinarritzen denez, duintasun hori bortxatzeak talde guztiari eragiten dio eta egoera horren erantzule bihurtzen du.

Elkartasunaren maila kolektibo eta politiko honen inguruan, Udalarari dagokio, beti bere eskumenen barruan, Bilboko adingabeei eragiten dien injustizia estrukturala minimizatzea

eta beren eskubide eta askatasunak guztiz eraginkorrak izatera bideratutako politikak diseinatzea.

3. Partaidetza

Plana, halaber, herritarren partaidetzan oinarritzen da, eta partaidetza esanez adierazi nahi dena erantzukizun instituzionalik ez duten pertsonen eta antolakundeek bizikidetzara hobetzeko egiten duten ekarpena da; ekintza sorta zabala hartzen du. Hertsikiago, herritarrek euren ahotsa entzunarazten duten eta erakundeen erabakietan eragiten saiatzen diren mekanismoekin identifikatzen da partaidetza.

Partaidetza instituzionalizatzeak ondorio positibo batzuk dauzka: 1) prozesu politikoaren legitimotasun handiagoa eta demokraziarekiko konpromisoa sendotzea, 2) herritar aktiboagoak eta auzoarekin arduratsuagoak egitea, 3) politika publiko eraginkoragoak eta testuingurura egokituagoak diseinatzen laguntzen du, 4) erakundeen gizarte kontrola indartzen du, eta 5) erakundeen zaharberritze prozesuak errazten ditu.

Parte hartzeak, gainera, aginpide banaketa dakar, eta hor normalean ahotsik izan ez duten taldeak sartu behar dira; horixe da ume eta nerabeen kasua, eta gaitasun eta baliabide gutxiago eduki dute euren interesei lehentasuna emanarazteko.

Udalari dagokio, adingabeen kasuan, eztabaidarako eta kontsultarako mekanismo instituzionalak martxan jartzea, non eta parte-hartzaileek eurak gobernatzeko arauak diseinatzen eta eztabaidatu beharreko gaiak aukeratzeko parte har dezaketen. Udalak, era berean, parte hartzea funtsari buruzkoa eta eraginkorra izateko behar den informazio guztia eskaini behar du, eta hartzen dituen erabakien kontuak emateko bideak ezarri behar ditu.

4. Sormena

Plan hau oinarritzen den beste printzipioetako bat sormena da, hau da, originala eta ezohikoa den zerbait sortzeko gaitasuna berrikuntzaren aurrekari gisa, berrikuntza sorbidean sortutakoaren aplikazio praktikoa izaki.

Banako eta talde gisa eboluzionatzen laguntzen digun neurrian sormena bera berez balio bat den arren, garrantzitsua da sormenari ikuspegi etikoa erantsi beharra ez ahanzte eta sortutakoaren gizarte balioaren galdera egitea eta ikustea zein neurritan dagoen ondasun handiago baten zerbitzura edo gizarte zuzenagoak eraikitzen laguntzen.

Sormenari dagokionez, Udalak zeregin garrantzitsua dauka jakintzak eta esperientziak, eztabaida, erabakiak eta esperimentazioa trukatzeko sustatuz adingabeen sormena pizteko eta ondasun komunera bideratzeko ingurune bat sortzen.

5. Gizon-emakumeen berdintasuna

Plana oinarritzen den printzipioetako bat gizon-emakumeen berdintasuna da, eta horrek eskatzen duena legezko diskriminaziorik eza baino askoz harago joatea da, benetako aukera berdintasuna lortzeko eta neskatoen eta nerabeen kasuan baliabideak eskuratzeko modua errazteko lan eginaz. Parekotasunak ekintza positiboko neurriak eskatzen ditu, are beharrezkoagoak baitira generoagatik desberdintasuna gizarte mailagatik, jatorriagatik, erlijioagatik edo bestelakotasun funtzionalagatik areagotzen denean.

Feminismoak dinamizatutako borroka gorabehera eta hainbata eremutan emakumeak ahalduz bultzatzeko helburuz araudi eta planetan emakumeen eskubideak apurka-apurka sartu diren arren, asimetriak iraun diraute, emakumeen aurkako zuzeneko, egiturazko eta kulturazko indarkeriaren forma hartuta.

Eremu honetan, Udalari dagokio ekintzak egitea adingabeengan bultzatzeko 1) lidergo femeninoa eremu politiko, sozial, ekonomiko, zientifiko, kultural eta mediatikoan, 2) bizitza profesional eta pertsonalaren bateragarritasuna gizon-emakumeen erantzukidetasunaren ikuspegitik, eta 3) zero tolerantzia genero indarkeriaren aurka.

6. [Ingurumen iraunkortasuna](#)

Ume eta Nerabeen Planak ingurumen iraunkortasuna ere bermatu behar du, hau da, biosferako baliabideak eta beren kalitatea denboran zehar babesten direla ziurtatuz giza jarduerak egituratzeko modua bermatu behar du. Hiri giroan zerbitzu publikoak berdintasunez jasotzen direla bermatzen duten politikak martxan jartzea eta ingurunearen gaineko eragina minimizatzea esan nahi du horrek. Iraunkortasun hori lortzeko, 1) baliabideen erabilera efizientea, 2) hondakinen kudeaketa egokia eta 3) hiritarren ingurumenarekiko jarrerak bultzatu behar dira.

Irudi lezakeena gorabehera, ez da kontu tekniko hutsa, izadiarekiko errespetuzko jarrera bereganatzen duen balio aldaketa bat eskatzen baitu, eta hori ume eta nerabeei transmititzea bereziki garrantzitsua da.

Maila orokorrean, Udalak azpiegiturak sortu eta mantendu behar ditu, eta biztanleriaren ongizatea bultzatuko duten politika ekonomiko eta sozialak martxan jarri behar ditu, hirigune naturalen babesa, hondakinen kudeaketa, airearen kalitatearen zaintza edo hiri garapen iraunkorra bezalako arloak arautzen dituzten araudiak eginik ingurumen iraunkortasunaren printzipioak errespetatuz. Umeen Planaren kasuan Udalaren rola adingabeengan ingurumenarekiko errespetuzkoak diren jarrera arduratsuak bultzatzea da, esate baterako birziklatzeaz, kontsumo arduratsuez edo garraio publikoa erabiltzeaz.

7. [Konpromisoa](#)

Gizarte antolakunde bateko kideek, euren gaitasunak eta ahalmenak ondasun komunaren eta helburu kolektiboan zerbitzurako jartzea helburu hartuta, banaka eta taldean dauzkaten edo beren gain hartzen dituzten erantzukizun edo eginbeharren multzoa da konpromisoa, eta printzipio horretan sostengatzen da Umeen Plana.

Udalaren kasuan, eta ume eta nerabeei begira, talde honetan gizarte osatzen duten gainerako pertsonenganako eta ondasun komunerako konpromiso kolektiboa sustatzeko ardura dago.

8. [Justizia soziala](#)

Umeen Planak gizarte ondasunak berdintasunez banatzea lortzera bideratuta egon behar du, horrela pertsona guztien duintasuna, bereziki adingabeena, eta kohesio soziala ziurtatuz. Printzipio honek banakoaren ekintza ez ezik erkidego politiko baten erakundeena ere gidatzen du.

Ondasun komuna interes pribatuaren ginetik dagoela barneratzea eskatzen du, eta aberastasuna berriro banatzeko mekanismo eraginkorrak aktibatzea dakar, pertsona guztiek

euren oinarrizko askatasunak baliatu ahal ditzaten gutxieneko baldintza materialak bermatzeko. Horrek potentzial integratzaile eta injustizia-konpontzaile bat dauka, erkidegoaren loturak indartzen dituena.

Udalaren eginbeharra ildo horretan tokiko esparruan injustizia estrukturala minimizatzen bideratutako politika publikoak diseinatzea eta legedia egitea da, ume eta nerabeen egoerari arreta berezia jarritz.

9. [Aniztasuna](#)

Umeen Planak arreta berezia jarri behar dio aniztasunari, hots, subjektuen arteko desberdintasuna agerian utziz pertsona errespetua merezi duen izaki moduan aitortzeari loturik bereizkeriaren aurkako balio sakona duen printzipioari, hain zuzen; hor daude sexu aniztasuna, kultura edo erlijio aniztasuna, aniztasun ideologiko-politikoa eta aniztasun edo bestelakotasun funtzionala.

Ume eta nerabeen kasuan bai bereizkeria zuzena (pertsona bat okerrago tratatzea bere jatorri etnikoagatik, erlijioagatik, aukera sexualagatik...) bai zeharkakoa (itxuraz neutroa den xedapen batek pertsona bat desabantailazko egoeran jartzea bere jatorri etnikoagatik, erlijioagatik, aukera sexualagatik...) saihestu behar da.

Maila praktikoan eta adingabeen aniztasunaren errespetua bermatzeko bide gisa, Udalak 1) egon daitezkeen bereizkeria sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalako mekanismoak ezabatzea, 2) bereizkeria nola gertatzen den eta bizikidetzarako nolako arriskuak dituten erakusteko pedagogia egitera, eta 3) herri erakundeetan aniztasun funtzional eta kulturala ikusgai bihurtzea bideratutako jarduerak garatu behar ditu.

Jarduteko irizpideak

- [Adingabearen interes gorena](#)

Zeharkako printzipio honen bidez ziurtatu egiten da ume eta nerabeen interesa nagusi izatea, beste edozeinen gainetik, eta adingabeek euren garapen eta ongizaterako behar duten babesa eta zaintza ziurtatzen du.

- [Adingabeen garapen ebolutiboaren arreta](#)

Igarotzen diren etapa eta ziklo guztietan umeek eta nerabeek dituzten beharrei arreta jartzea, eta, ondorioz, Planeko ekintzak horietara egokitu beharra.

- [Politika publiko integralen garapena](#)

Adingabeak eta euren bizitzak eta beharrak osotasun moduan hartzea, eta arreta programa eta zerbitzuen zatikapena eta sektorizazioa gainditzen duen arreta elkarrekin erlazionatu baten aldeko apustua.

- [Koordinazioa eta arrazionaltasuna](#)

Udal sail eta erakundeen arteko koordinazioa, eta horien eta Bilbo udalerrian umeekin eta nerabeekin esku hartzen duten beste administrazio eta/edo gizarte taldeen artekoa,

esfortzuak biltzea, dauden baliabideak errentagarri bihurtzea eta bikoiztasunak eta teilakatzeak saihestea helburu hartuta.

Planaren ildo estrategikoak:

Udal sail eta erakundeek datozen urteetan ume eta nerabeei zuzenduko dieten jarduera giltzaten duten ildo estrategikoak helburu eta ekintzatan konkretatzen dira, eta hauek dira:

1. Lan bizitza eta familia bateragarri egitera eta gurasoei arlo honetan tresnak ematera bideratutako neurrien bitartez seme-alaben hazkuntza arduratsuan familiei laguntzea.
2. Jokabide arriskutsuen prebentzioarekin, ohitura osasungarrien sustapenarekin eta arreta goiztiarrarekin umeen eta nerabeen osasun fisiko eta mentala sustatzea.
3. Desberdintasunari aurrea hartzeko baliabide gisa ikasle guztien eskola arrakasta bultzatzea.
4. Adingabeak dituzten familiei haien garapenean txarrerako eragiten duten beharren estalduran lagunduz umeen desberdintasuna eta pobrezia gutxitzea.
5. Ume eta nerabeen ahultasun, arrisku eta babesgabetasun egoeren prebentzioa, arreta eta esku hartzea hobetzea.
6. Ume eta nerabeen gustu eta beharretara egokitutako inklusiozko eskaintza baten bidez haiek aisia, kultura eta kirol ekintzetan parte hartzea sustatzea
7. Adingabeen kultura identitatearen elementu integratzailea denez haien bizitzako eremu guztietan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea.
8. Balioen heziketa (aniztasunaren errespetua, genero berdintasuna...), bizikidetza eta parte hartzea hezkuntzako eragile guztiekin koordinaturik bultzatzea
9. Herritarren parte aktibotzat onartuz eta hiriari buruzko erabakietan parte hartzea bermatuz hiriaren diseinuan ume eta nerabeen beharrak zeharretara eranstea.
10. Egiten diren esku hartzeen koherentzia, egonkortasuna, jarraitutasuna, eraginkortasuna eta efizientzia bilatuz erakundeen arteko eta adingabeekin lan egiten duten eragile guztien arteko koordinazioa bultzatzea.

Ekintza plana

Kontu interesgarri batzuk:

Planaren indarraldia

Ume eta Nerabeen Plan honetarako aurreikusitako indarraldia lau urtekoa da, 2018tik 2021era bitartekoa.


Indarraldi hau bat letorke Bilborentzat UNICEFen Hiri Ume-lagunaren aitortza zigiluaren balioaldiarekin, Hiriak 2018an, beste ekintza batzuez gain, Plan hau eginez lortu nai duen horrekin, hain zuzen.

Ildo horreketan, aurreikusita dago Planean sartuta dauden ia ekintza guztiak berau indarrean dagoen bitartean egitea. Hala, bada, Plana indarrean egongo den lau urteetako bakoitzerako aurreikusi den urteko kronograma ia guztiz bat etorriko litzateke ondorengo tauletan aurkezten den ekintza planarekin².

Planaren egitura

Plana 10 ildo estrategikotan egituratzen da. Horietako bakoitzak helburu bati edo batzuei erantzuten die edo bat edo batzuk biltzen ditu, eta horiek, aldi berean, ekintzatan konkretatzen dira.

Zenbakien aldetik Plana honela laburtu dezakegu:



Aurreko atalean aurreratu diren hamar ildo estrategikoekin erantzun nahi zaien hogeita sei helburuak ondoren zehazten direnak dira:

1. ildo. Lan bizitza eta familia bateragarri egitera eta gurasoei arlo honetan tresnak ematera bideratutako neurrien bitartez seme-alaben hazkuntza arduratsuan familiei laguntzea.

1.1 helburua. Gurasoen familiako eta laneko erantzukizunak bateragarri egiten laguntzea eta prestatzen diren erantzunetan eta laguntzetan familia moten aniztasunari arreta jartzea.

² Arau honen salbuespenak berariazko oin oharrekin adierazten dira.

1.2 helburua. Gatazkak kudeatzeari, komunikazioari, adingabeen autonomia sustatzeari eta besteri dagokienez seme-alaben hazkuntza etapa bakoitzean haien hazkuntza arduratsu eta erantzunkideari aurre egiteko ezagutzak eta tresnak gurasoei ematea.

1.3 helburua. Seme-alabak dituzten familiei neurri ekonomiko eta/edo fiskalen bidez laguntzea.

2. ildo. Jokabide arrikutsuen prebentzioarekin, ohitura osasungarrien sustapenarekin eta arreta goiztiarrarekin umeen eta nerabeen osasun fisiko eta mentala sustatzea.

2.1 helburua. Elikadurari, higienerari, kirolari eta besteri buruzko ohitura osasungarriak sustatzea.

2.2 helburua. Erabakiak informatuta eta irizpidez hartzeko gai izan daitezen, substantzien kontsumoaz edo sexu jokaerez nerabeekiko lanaren hasiera adin goiztiarragoetara aurreratuz kontsumo eta jokaera horiei loturiko arriskuzko portaerei aurrea hartzea.

2.3 helburua. Adingabeekin esku hartzen duten zerbitzu guztien lan bateratua indartuz eta prebentzioa azpimarratuz osasun mentalaren eta aniztasun funtzionalaren arloan lan egitea.

3. ildo. Desberdintasunari aurrea hartzeko baliabide gisa ikasle guztien eskola arrakasta bultzatzea.

3.1 helburua. Bai ikasgela barruan bai kanpoan dauden laguntza programak (eskola laguntzako programak, eskolaz kanpokoak, gizarte lantegi hezitzaileak eta abar) indartuz eta behar diren baliabide materialez eta giza baliabidez hornituz eskolako errendimendua eta arrakasta bultzatzea.

3.2 helburua. Aniztasunari arreta jartzeko programak indartuz eta desgaitasuna, portaeraren nahasteren bat edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei hezkuntza sistema egokituz eta erronka honetarako baliabidez hornituz desberdintasunari aurrea hartzeko baliabide gisa hezkuntza sistemak duen rola sendotzea.

3.3 helburua. 0 eta 3 urte bitarteko adingabeen ume arretarako sarea sendotzea eta neska-mutikoen garapenean duen onuragarritasunari garrantzia ematea.

4. ildo. Adingabeak dituzten familiei haien garapenean txarrerako eragiten duten beharren estalduran lagunduz umeen desberdintasuna eta pobrezia gutxitzea.

4.1 helburua. Adingabeak ardurapean dituzten egoera ahuleneko familiei euren oinarrizko beharrak estaltzera bideratutako programa eta prestazioen bitartez umeen pobrezia aurrea hartzea eta umeen desberdintasuna gutxitzea

4.2 helburua. Etxebizitza galtzeko arrisku egoerei arreta jartzea

5. ildo. Ume eta nerabeen ahultasun, arrisku eta babesgabetasun egoeren prebentzioa, arreta eta esku hartzea hobetzea.

5.1 helburua. Arrisku egoeren detekzio goiztiarra bultzatzea, bai eta gizarteko esku hartze hezitzaile eta psikosozialen bitartez eta komunitateko baliabideekin koordinatuz familiaren babesa bermatzeko umeen babesgabetasun egoeren prebentzioa, balioespena eta arreta ere bultzatzea.

5.2 helburua. Indarkeria mota desberdinen berezitasunak (berdinen arteko tratu txarra, genero indarkeria eta gurasoekiko indarkeria) eta horien biktimentzako

ondorioak kontuan harturik ume eta nerabeek egiten duten indarkeriari aurrea hartzea eta egoera horiei ekitea.

5.3 helburua. Edozergatik baliabide edo zerbitzu batzuk jasotzeko desabantailazko edo zailtasunezko egoeran egon daitezkeen pertsonak euren eskubideak berdintasunez baliatu ahal ditzaten behar diren neurriak eranstea.

5.4 helburua. Ume eta nerabe taldeekin lan egiten duten profesionalekin sentsibilizazio eta prestakuntza arloan aurrera egitea.

6. ildo. Ume eta nerabeen gustu eta beharretara egokitutako inklusiozko eskaintza baten bidez haiek aisia, kultura eta kirol ekintzetan parte hartzea sustatzea

6.1 helburua. Garapen pertsonala, autonomia eta balioak sustatuko dituen aisia eskaintza plurala, askotarikoa eta erakargarria bultzatu eta eskaintzea

6.2 helburua. Adingabe guztiek, euren familien baliabideak eta bestelako faktoreak gorabehera, kulturaz, astialdiaz eta kirolaz bete-betean goza dezaten eta euren garapen pertsonalerako funtsezkoak diren kultura ohiturak eta gaitasunak berenganatu ahal izateko ekintzak eta ekipamenduak bultzatzea.

7. ildo. Adingabeen kultura identitatearen elementu integratzailea denez haien bizitzako eremu guztietan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzea.

7.1 helburua. Ume eta nerabeen bizitzako arlo guztietan euskararen erabilera handitzea.

8. ildo. Balioen heziketa (aniztasunaren errespetua, genero berdintasuna...), bizikidetzaren eta parte hartzea hezkuntzako eragile guztiekin koordinaturik bultzatzea

8.1 helburua. Aniztasunaren errespetuan aurrera egitea arlo guztietan: sexu orientazioa, aniztasun kultural eta etnikoa, bestelakotasun funtzionala eta abar.

8.2 helburua. Adingabeen artean gizon-emakumeen berdintasuna bultzatzea.

8.3 helburua. Kontsumo arduratsua, euren benetako beharrei egokitutako kontsumoa, ingurumena eta giza eskubideak errespetatzen dituzten produktuak eta zerbitzuak aukeratzeari lehentasuna ematen diona sustatzea.

8.4 helburua. Ume eta nerabeen artean euren gaitasunak ondasun komunaren eta helburu kolektiboen zerbitzura jartzea eta erantzukizunak eta konpromisoak berenganatzea sustatzea.

8.5 helburua. Ikasleek eta familiek ikastetxean parte hartzeari bide ematea.

9. ildo. Herritarren parte aktibotzat onartuz eta hiriari buruzko erabakietan parte hartzea bermatuz hiriaren diseinuan ume eta nerabeen beharrak zeharretara eranstea.

9.1 helburua. Hiriaren eta bere leku, ekipamendu eta zerbitzuen plangintzan eta diseinuan ume eta nerabeen jolas, segurtasun, mugikortasun eta autonomia eskubidea dutenez haien beharren ikuspegia zeharretara eranstea.

9.2 helburua. Umearen Eskubideen Konbentzioan jasotzen diren eskubideak bermatuko dituzten prozesuak eta umeei eragiten dieten politiken diseinuan haurrek parte hartzeko kanalak abian jartzea.

10. ildo. Egiten diren esku hartzeen koherentzia, egonkortasuna, jarraitutasuna, eraginkortasuna eta efizientzia bilatuz erakundeen arteko eta adingabeekin lan egiten duten eragile guztien arteko koordinazioa bultzatzea.

10.1 helburua. Eraginkorrakoak eta efizienteagoak izate aldera eta esku hartze puntual eta/edo estankoak saiheste aldera, esku hartzea koherentea eta egonkor eta jarraitua izan dadin erakundeen arteko koordinazioa eta eragile guztien artekoa bultzatzea.

Ekintza zerrenda:

Atal honetan Ume eta Nerabe Planak hartzen dituen ekintza guztien zerrenda aurkezten da. Horretarako, lau taula mota prestatu dira, datu nagusiak ikuspegi desberdinetatik aurkezten dituztenak, eta, beraz, irakurketa desberdin eta osagarriak eskaintzen dituzte.

Lehenik eta behin, ume eta nerabeentzako ekintzei buruz jaso den informazio guztia ematen da, antolatu diren hamar ildo estrategikoen arabera ordenatuta. Helburua **Planaren aurkezpen orokorra** egitea da, **maila estrategikoan**.

Taula hauetan ematen da ekintza bakoitzak erantzuten dion *helburu nagusiari* buruzko informazioa; zenbait ekintza taldekatuta dituen *jarduera orokorraren* izena eta helburuak, hartzailak edo antzeko metodologiak; ekintzaren *erreferentzia kodea* (hortik abiatuta ekintza bakoitza helburu eta ildo estrategiko batekin identifikatzea dago); ekintza bakoitzaren *adina*; eta ekintza bakoitzak bere helburuaz gain bultzatzen dituen beste *helburuak*.

Bigarrenik, dagoen informazioa ezarritako hogeita sei helburuen arabera sistematizatu da. Aurkezpen honen helburua **xehetasun handiagoko aurkezpena** eta **lanerako atalkatuagoa** ematea da.

Taula hauetan informazioa ematen da ekintza bakoitzaren *ardura duen udal sail edo erakunde arduradunaz*; horri ematen zaizkion *baliabideak* (gehienetan urteko aurrekontua); ekintzaren arduraren duen sailak jarri duen *ekintzaren adierazlea* haren jarraipena egiteko; eta datuak dauzkagun azken urteko adierazle honen balioa (*oinarri lerroa*).

Hirugarrenik, ume eta nerabeentzako ekintzen informazioa ematen da Garapen Iraunkorreko Helburuei eta NBEren 2030 Agendaren jomugei³ laguntzen dieten neurrian ordenatuta.

Horrela, taula hauek jasotzen dituzte Planean biltzen diren ekintzekin zerikusia duten GIHak eta jomuga konkretuak, horietako bakoitzari laguntzen dioten *ekintza kopurua* eta horiek identifikatzeko balio duten *erreferentzia kodeak* (lehen tauletan azaldutakoan oinarrituta).

Azkenik, Plan honetan jasotzen diren ekintzei buruzko informazioa, orientatuta dagoen adin taldearen arabera ordenatuta ageri da.

Horietan, informazioa ematen da adin talde bakoitzera orientaturiko *ekintza kopuruaz*, eta horiek identifikatzeko *erreferentzia kodeak* eta *izena* ere ematen da.

³Ondoren ematen den estekan informazio gehiago lor daiteke Garapen Iraunkorreko Helburuez, eta horien zerrenda osoa eta jomugak ere badaude.

<http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible>

Dokumentu honek biltzen duen informazioaz gain, Planak **eranskin** bat dauka (Excel formatuan), ekintza bakoitzari buruzko datuak xehetasun handiagoz ematen dituena, eta nahi duten udal sail eta erakundeei azterketa osagarriak egiten lagunduko die.

Zehazkiago, eranskinak datu matrize bat dakar, eta eremu hauek ditu:

- *Ildo estrategikoa;*
- *Helburua;*
- *Ekintza orokorra;*
- *Ekintza kodea;*
- *Jarduera;*
- *Deskripzioa;*
- *Sail edo erakunde arduraduna;*
- *Beste helburuetarako ekarpena (2. aukera);*
- *Beste helburuetarako ekarpena (3. aukera);*
- *Adina (birkodetu gabe);*
- *Jaioberri aroa (0-2 urte);*
- *I. haurtzaroa (3-8 urte);*
- *II. haurtzaroa (9-11 urte);*
- *Lehen nerabezaroa (12-14 urte);*
- *Nerabezaro aurreratua (15-17 urte);*
- *Gurasoak, tutoreak, familiak, helduak;*
- *Aurreikusitako denbora epea;*
- *Udal Gobernu Planarekiko uztardura;*
- *Udal Gobernu Planarekiko uztardura (kodeak);*
- *Garapen Iraunkorreko Helburuekiko uztardura (2030 Agenda);*
- *Baliabideak 2016an;*
- *Erabiltzaile bolumena 2016an;*
- *Ekintza-adierazlea;*
- *Egiaztapen iturria;*
- *Oinarri lerroa;*
- *Informazioa emateko arduraduna.*

Tauletan ageri diren kontzeptu nagusien glosarioa

Atal honetan azaltzen dira dokumentu honetan agertzen diren taulan erabilitako terminoak, taulak hobeto ulertzeko. Hauetan erabili diren kontzeptuak ondorengoak dira:

Ildo estrategikoak

Datozen urteetan garatu beharreko lana zedarrizten eta gidatzen duten eta Plan honen xedea eta helburuak lortzen laguntzen duten bide edo lerro handiak dira.

Helburuak

Ildo estrategikoetan txertatzen dira, eta gure gurariak eta datozen urteetan sortu nahi ditugun aldaketak konketuago zehazteko balio digute. Ekintzak orientatzen dituzte eta zentzua ematen diete.

Jarduera orokorrak

Elementu komun bat edo gehiago dituztelako elkarrekin zerikusia duten ekintzak elkartzen dituen izena da. Elementu horiek berariazko helburu bat, biztanle hartzaileak, esku hartzeko metodologia, jarduteko eremua eta abar izan daitezke.

Ekintza kodea

Ekintza bakoitza identifikatzeko balio duen zenbakizko kode bat da eta 4 zifra ditu. Lehenak ekintza bakoitza kokatzen den ildo estrategikoa adierazten du, bigarrenak zein helburutan kokatu den eta hirugarrenak jarduera orokorra.

Ekintza

Kategoria honetan sartu dira ume eta nerabeentzat udal sail edo erakundeek abian jarri dituzten proiektu, programa, zerbitzu edo egintza konkretuak, jarritako helburuak lortzeko balio digutenak.

Adina

Ekintzak zein adinetarako den adierazten du.

Udal sail edo erakunde arduraduna

Ekintzaren erantzukizuna duen udal sail edo erakundea ezartzen du.

Urteko aurrekontua

Ekintza bakoitzaren urteko kostua ematen du. Datua, besterik esaten ez bada, 2016koa da, kasurik gehienetan informazioa dagoen azken urtea delako. Kasu batzuetan, sail edo erakunde arduradunei zail egiten zaienez kalkulatzeari, jasotzen den datua ez da programa edo proiektua egitearen edo kontratatzearen kostua, jatorriko partidaren kopurua baino.

Ekintza-adierazlea

Gelaxka honetan parametro bat identifikatu da, kasu batzuetan bat baino gehiago, ekintzaren jarraipena egiterakoan arreta jarriko zaion ekintzarekin erlazionatuta dagoena.

Adierazlearen balioa 2016an

Gelaxka honek ekintza-adierazlearen balio bat jasotzen du ekintza bakoitzerako 2016an, kasurik gehienetan datuak dauden azken urtealdia delako.

Garapen iraunkorreko helburuak (GIH) eta jomugak

Gelaxka honetan NBEk *Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan* ezarritako helburuak eta jomugak adierazten dira, horiek lortzen laguntzen baita ekintza bakoitza eginaz. Ikus daitekeenez, beti ez datoz bat Plan honetan jasotzen diren ekintzak eta Agenda horretako helburu eta jomugak.

Adin tartea

Datu honek Plan honetan jasotzen den ekintza bakoitza zein adin bitartetako pertsoneri zuzenduta dagoen islatzen du. Ekintza guztiak sailkatu diren bost kategoriak (0-2, 3-8, 9-11, 12-14 eta 15-17 urte) udalerriko ume eta nerabeentzat lanik gehien egiten duten udal sailekin adostuta ezarri dira, adin talde bakoitzaren interes eta gustuez udal sail horiek duten ezagutza aintzat harturik.

UME ETA NERABEENTZAKO EKINTZA PLANA ILDO ESTRATEGIKOAREN ARABERA

Ildo estrategikoa	Helburua	Batez ere helburu honetan laguntzen duten ekintzen kopurua	
1. Lan bizitza eta familia bateragarri egitera eta gurasoei arlo honetan tresnak ematera bideratutako neurrien bitartez seme-alaben HAZKUNTZA arduratsuan familiei laguntzea	1.1. Gurasoen familiako eta laneko erantzukizunak bateragarri egiten laguntzea eta prestatzen diren erantzunetan eta laguntzetan familia moten aniztasunari arreta jartzea.	12	24
	1.2. Gatazkak kudeatzeari, komunikazioari, adingabeen autonomia sustatzeari eta besteri dagokienez seme-alaben hazkuntza etapa bakoitzean haien hazkuntza arduratsu eta erantzunkideari aurre egiteko ezagutzak eta tresnak gurasoei ematea.	6	
	1.3. Seme-alabak dituzten familiei neurri ekonomiko eta/edo fiskalen bidez laguntzea	6	
2. Jokabide arriskutsuen prebentzioarekin, ohitura osasungarrien sustapenarekin eta arreta goiztiarrekin umeen eta nerabeen OSASUN fisiko eta mentala sustatzea	2.1. Elikadurari, higieneari, kirolari eta besteri buruzko ohitura osasungarriak sustatzea.	23	34
	2.2. Erabakiak informatuta eta irizpidez hartzeko gai izan daitezten, substantzien kontsumoaz edo sexu jokaerez nerabeekiko lanaren hasiera adin goiztiaragoetara aurreratuz kontsumo eta jokaera horiei loturiko arriskuzko portaerei aurrea hartzea.	8	
	2.3. Adingabeekin esku hartzen duten zerbitzu guztien lan bateratua indartzu eta prebentzioa azpimarratuz osasun mentalaren eta aniztasun funtzionalaren arloan lan egitea.	3	
3. Desberdintasunari aurrea hartzeko baliabide gisa ikasle guztien ESKOLA ARRAKASTA bultzatzea.	3.1. Bai ikasgela barruan bai kanpoan dauden laguntza programak (eskola laguntzako programak, eskolaz kanpokoak, gizarte lantegi hezitzaileak eta abar) indartzu eta behar diren baliabide materialez eta giza baliabidez hornituz eskolako errendimendua eta arrakasta bultzatzea.	3	9
	3.2. Aniztasunari arreta jartzeko programak indartzu eta desgaitasuna, portaeraren nahasteren bat edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei hezkuntza sistema egokitzu eta erronka honetarako baliabidez hornituz desberdintasunari aurrea hartzeko baliabide gisa hezkuntza sistemak duen rola sendotzea.	2	
	3.3. 0 eta 3 urte bitarteko adingabeen ume arretarako sarea sendotzea eta neska-mutikoen garapenean duen onuragarritasunari garrantzia ematea.	4	
4. Adingabeak dituzten familiei haien garapenean txarrerako eragiten duten beharren estalduran lagunduz umeen desberdintasuna eta POBREZIA gutxitzea.	4.1. Adingabeak ardurapean dituzten egoera ahuleneko familiei euren oinarriko beharrak estaltzera bideratutako programa eta prestazioen bitartez umeen pobrezia aurrea hartzea eta umeen desberdintasuna gutxitzea	4	6
	4.2. Etxebizitza galtzeko arrisku egoerei arreta jartzea.	2	
5. Ume eta nerabeen ahultasun, ARRISKU eta BABESGABETASUN egoeren prebentzioa, arreta eta esku hartzea hobetzea	5.1. Arrisku egoeren detekzio goiztiarra bultzatzea, bai eta gizarteko esku hartze hezitzaile eta psikosozialen bitartez eta komunitateko baliabideekin koordinatuz familiaren babesa bermatzeko umeen babesgabetasun egoeren prebentzioa, balioespena eta arreta ere bultzatzea.	11	16
	5.2. Indarkeria mota desberdinen berezitasunak (berdinen arteko tratu txarra, genero indarkeria eta gurasoekiko indarkeria) eta horien biktimentzako ondorioak kontuan harturik ume eta nerabeek egiten duten indarkeriari aurrea hartzea eta egoera horiei ekitea.	1	
	5.3. Edozergatik baliabide edo zerbitzu batzuk jasotzeko desabantailazko edo zailtasunezko egoeran egon daitezkeen pertsonen euren eskubideak berdintasunez baliatu ahal ditzaten behar diren neurriak eranstea.	3	
	5.4. Ume eta nerabe taldeekin lan egiten duten profesionalekin sentsibilizazio eta prestakuntza arloan aurrera egitea.	1	

6. Ume eta nerabeen gustu eta beharretara egokitutako inklusiozko eskaintza baten bidez haiek aisia, kultura eta kirol ekintzetan parte hartzea sustatzea	6.1. Garapen pertsonala, autonomia eta balioak sustatuko dituen aisia eskaintza plurala, askotarikoa eta erakargarria bultzatu eta eskaintzea.	13	71
	6.2. Adingabe guztiek, euren familien baliabideak eta bestelako faktoreak gorabehera, kulturaz, astialdiaz eta kirolaz bete-bete goza dezaten eta euren garapen pertsonalerako funtsezkoak diren kultura ohiturak eta gaitasunak berenganatu ahal izateko ekintzak eta ekipamenduak bultzatzea.	58	
7. Adingabeen kultura identitatearen elementu integratzailea denez haien bizitzako eremu guztietan EUSKARAREN ezagutza eta erabilera bultzatzea.	7.1. Ume eta nerabeen bizitzako arlo guztietan euskararen erabilera handitzea.	8	8
8. BALIOEN heziketa (aniztasunaren errespetua, genero berdintasuna...), bizikidetzeta eta parte hartzea hezkuntzako eragile guztiekin koordinaturik bultzatzea	8.1. Aniztasunaren errespetuan aurrera egitea arlo guztietan: sexu orientazioa, aniztasun kultural eta etnikoa, bestelakotasun funtzionala eta abar.	2	9
	8.2. Adingabeen artean gizon eta emakumeen berdintasuna bultzatzea.	2	
	8.3. Kontsumo arduratsua, euren benetako beharrei egokitutako kontsumoa, ingurumena eta giza eskubideak errespetatzen dituzten produktuak eta zerbitzuak aukeratzeari lehentasuna ematen diona sustatzea.	2	
	8.4. Ume eta nerabeen artean euren gaitasunak ondasun komunaren eta helburu kolektiboen zerbitzura jartzea eta erantzukizunak eta konpromisoak berenganatzea sustatzea.	2	
	8.5. Ikasleek eta familiek ikastetxean parte hartzeari bide ematea.	1	
9. Herritarren parte aktibotzat onartuz eta hiriari buruzko erabakietan PARTE HARTZEA bermatuz HIRIAREN diseinuan ume eta nerabeen beharrak zeharretara eranstea.	9.1. Hiriaren eta bere leku, ekipamendu eta zerbitzuen plangintzan eta diseinuan ume eta nerabeen jolas, segurtasun, mugikortasun eta autonomia eskubidea dutenez haien beharren ikuspegia zeharretara eranstea.	5	11
	9.2. Umearen Eskubideen Konbentzioan jasotzen diren eskubideak bermatuko dituzten prozesuak eta umei eragiten dieten politiken diseinuan hurrek parte hartzeko kanalak abian jartzea.	6	
10. Egiten diren esku hartzeen koherentzia, egonkortasuna, jarraitutasuna, eraginkortasuna eta efizientzia bilatuz erakundeen arteko eta adingabeekin lan egiten duten eragile guztien arteko koordinazioa bultzatzea.	10.1. Eraginkorrakoak eta efizienteagoak izate aldera eta esku hartze puntual eta/edo estankoak saiheste aldera, esku hartzea koherentea eta egonkor eta jarraitua izan dadin erakundeen arteko koordinazioa eta eragile guztien artekoa bultzatzea.	5	5

Oharra: ekintza batzuek helburu bati baino gehiagori eragiten diote, baina laburpen taula honetan helburu eta ildo estrategiko bakoitzari lotutako ekintzak baino ez dira kontuan hartu, ekarpen nagusia zeinentzat den kontuan hartuta.

1. ildo estrategikoa. Lan bitzta eta familia bateragarri egitera eta gurasoei arlo honetan tresnak ematera bideratutako neurrien bitartez seme-alaben hazkuntza arduratsuan familiei laguntzea

Helburua	Jarduera orokorra	Ekintza kodea	Ekintza	Adina	Beste helburuetarako ekarpena
1.1. Gurasoen familiako eta laneko erantzukizunak bateragarri egiten laguntzea eta prestatzen diren erantzunetan eta laguntzetan familia moten aniztasunari arreta jartzea.	1.1.1. Aste Santuko oporraldiko jolas eta/edo aisia eskaintza	1.1.1.1.	Aste Santuko Guneberri programa	5-8 urte	7.1.
		1.1.1.2.	Aste Santuko Kideberri programa	9-11 urte	7.1.
		1.1.1.3.	Aste Santuko Zumizgai kanpalekua	4-11 urte	7.1.
		1.1.1.4.	Aste Santuko Zientzia Zorua programa	8-11 urte	7.1.
	1.1.2. Udako oporraldiko jolas eta/edo aisia eskaintza	1.1.2.1.	Udako Jolastokia uda programa	3-5 urte	7.1.
		1.1.2.2.	Eguneko Udalekuen uda programa	3-11 urte	7.1.
		1.1.2.3.	Udako Zumizgai kanpalekua	4-11 urte	7.1.
	1.1.3. Eguberriko oporraldiko jolas eta/edo aisia eskaintza	1.1.3.1.	Eguberriko Gabongune programa	5-8 urte	7.1.
		1.1.3.2.	Eguberriko Gabonkide programa	9-11 urte	7.1.
		1.1.3.3.	Eguberriko Zeu Moldatu/Ingénietelas programa	8-11 urte	7.1.
		1.1.3.4.	Eguberriko Zumizgai kanpalekua	4-11 urte	7.1.
		1.1.3.5.	Eguberriko umeen gida	Gurasoak, tutoreak, familiak, helduak	
	1.2. Gatazkak kudeatzeari, komunikazioari, adingabeen autonomia sustatzeari eta besteri dagokienez seme-alaben hazkuntza arduratsu eta erantzunkideari aurre egiteko ezagutzak eta tresnak gurasoei ematea.	1.2.1. Hazkuntzan eta hezkuntzan informazioa, orientazioa eta laguntza gurasoei eskaintzea	1.2.1.1.	Familian Hezi eta Hazi zerbitzua	Adin guztiak
1.2.1.2.			Guraso eskola	Helduak	8.1.
1.2.1.3.			Egoera ahulean dauden adingabeen eta/edo euren senideen partaidetza bultzatzen duten proiektuak diruz laguntzea	0-18 urte	5.1./5.4.
1.2.1.4.			18 urte baino gutxiagoko pertsonen ongizatea sustatzen duten proiektuak diruz laguntzea	0-18 urte	5.1./5.4.
1.2.2. Droga mendekotasunaren eta beste mendekotasun batzuen prebentzioari buruz familiak eta beste hezkuntza-eragileak informatzea eta orientatzea		1.2.2.1.	Droga mendekotasunen prebentziorako eskolak	Helduak	
		1.2.2.2.	Nerabeak dituzten familientzako orientazio zerbitzua (kontsumoei buruzko kontsultak)	Helduak	
1.3. Seme-alabak dituzten familiei neurri ekonomiko eta/edo fiskalen bidez laguntzea	1.3.1. Familia ugarietzako zerga hobariak	1.3.1.1.	Familia ugarietako mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren hobaria ematea	Adin guztiak	
	1.3.2. Seme-alaba adingabeak dituzten familiei, familia ugarietako eta/edo guraso bakarreko familiei tarifak eta zerbitzuen prezioak merkatzea	1.3.2.1.	Familia ugarietako kideei Bilbobuseko tarifa merkatuak eskaintzea	Adin guztiak	
		1.3.2.2.	Gazteria eta Kirol Sailaren programetan familia ugarietzako prezio merkatuak eskaintzea	0-17 urte	
		1.3.2.3.	Bilbao Kirolak-en familia ugarietako, guraso bakarreko familiei eta guraso bakarreko familia ugarietako familiei abonamenduak eskaintzea	Adin guztiak	
		1.3.2.4.	Azkuna zentroko kirol zerbitzuetan guraso bakarreko familiei familiako abonamenduak eta adingabeei deskontuak egitea	Adin guztiak	
		1.3.2.5.	Bilbao Musika musika irakasteko zerbitzuan familia ugarietako eta guraso bakarreko familiei kenketak egitea	0-17 urte	

2. ildo estrategikoa. Jokabide arriskutsuen prebentzioarekin, ohitura osasungarrien sustapenarekin eta arreta goiztiarrarekin umeen eta nerabeen osasun fisiko eta mentala sustatzea.

Helburua	Jarduera orokorra	Ekintza kodea	Ekintza	Adina	Beste helburuetarako ekarpena
2.1. Elikadurari, higieneari, kirolari eta besteri buruzko ohitura osasungarriak sustatzea.	2.1.1. Elikadura osasungarria, higiena eta osasuna sustatzea	2.1.1.1.	Higiene pertsonaleko programa	8-9 urte	
		2.1.1.2.	Aho-hortzen osasun programa	6-7 urte	
		2.1.1.3.	Elikadura osasungarriaren programa	6-12 urte	
		2.1.1.4.	Lehen laguntza eta BBB programa	16-17 urte	
		2.1.1.5.	Osasun ikastaroak	Hezkuntza komunitate guztia	
	2.1.2. Pubertaroko eta nerabearoko aldaketei buruzko informazioa eta hausnarketa guneak	2.1.2.1.	Pubertaroko programa	12 urte	
		2.1.2.2.	Nerabeen programa	16 urte	
		2.1.2.3.	Gure gorputza aldagai programa	11 urte	
		2.1.2.4.	Osasunaren informazio puntu pertsonalizatua	18-35 urte	
	2.1.3. Gorputz ariketa eta kirola sustatzea	2.1.3.1.	0-14 urte bitartekoentzako ikastaro programa	0-14 urte	6.1./1.1.
		2.1.3.2.	14-18 urte bitartekoentzako ikastaro programa	14-18 urte	6.1./2.2.
		2.1.3.3.	0-2 urteko jaioberrientzako igeriketa programa	0-2 urte	3.3./1.1.
		2.1.3.4.	Igeri jai programa (2-8 urte)	2-8 urte	6.1./3.1.
		2.1.3.5.	Aste Santuko kirol programa	6-13 urte	6.1./1.1.
		2.1.3.6.	Udako kirol programa	6-13 urte	6.1./1.1.
		2.1.3.7.	Eguberriko kirol programa	6-13 urte	6.1./1.1.
		2.1.3.8.	Udalaren kirol eskola	8-12 urte	6.1./3.1.
		2.1.3.9.	Hitzartutako kirol eskolak	6-18 urte	6.1./3.1.
		2.1.3.10.	Superheroi programa (5-10 urte)	5-10 urte	6.1./3.1.
		2.1.3.11.	Eskolako igeriketari diru laguntzak ematea (8-11 urteko ikasleentzat)	8-11 urte	
2.2. Erabakiak informatuta eta irizpidez hartzeko gai izan daitezten, substantzien kontsumoaz edo sexu jokaerez nerabeekiko lanaren hasiera adin goiztiaragoetara aurreratuz kontsumo eta jokaera horiei loturiko arriskuzko portaerei aurrea hartzea.	2.2.1. Drogen kontsumoari buruzko eta/edo mendekotasunei aurrea hartzeko ume eta nerabeen sentsibilizazioa, informazioa eta gaikuntza	2.1.3.12.	CAF JAIOBERRI UR ikastaroak	12-36 hilabete	3.1./6.2.
		2.1.3.13.	CAF Haur UR ikastaroak	4-12 urte	3.1./6.2.
		2.1.3.14.	CAF Haur LUR ikastaroak	4-12 urte	3.1./6.2.
		2.2.1.1.	Droga mendekotasunen prestakuntza saioak / prebentzio programak	6-12 urte	
2.2.1.2.		Gizarte trebetasunei buruzko soziodrama saioak	3-7 urte		
2.2.1.3.		Droga mendekotasunen prestakuntza saioak / prebentzio programak	12-18 urte		
2.2.1.4.		Txotxongilo antzezenak (droga mendekotasunen prebentzioa)	3-7 urte		
2.2.1.5.		"Aukeratzten hasita" antzerki bidezko prebentzio saioak	16-18 urte		
2.2.1.6.		Zinema saioak (droga mendekotasunen prebentzioa)	16-18 urte		
2.2.1.7.		Alkohola eta beste drogak kontsumitzearen ondorio diren arriskuak kudeatzeko prestakuntza lantegiak	16-18 urte		
2.2.1.8.		Aisiaguneetan eta Aste Nagusian droga mendekotasunaren informazio eta prebentzio zerbitzua eskaintzea	18 urtetik aurrera		
2.3. Adingabeekin esku hartzen duten zerbitzu guztien lan bateratua indartuz eta prebentzioa azpimarratuz osasun mentalaren eta aniztasun funtzionalaren arloan lan egitea.	2.3.1. Laguntza psikosozialeko programak	2.3.1.1.	Modulu Psikosozialetako ume eta nerabeentzako Osasun Mentaleko programa	0-18 urte	5.1./5.2.
		2.3.1.2.	Portaera arriskutsua duten nerabeei eta euren familiei arreta egiteko HIRUSTA proiektua (Gizakia fundazioa)	13-18 urte	5.1./5.2.
		2.3.1.3.	Haur eta gazteen osasun mentalaren sustapena (Haurrentzat elkarte)	0-18 urte	

3. ildo estrategikoa. Desberdintasunari aurrea hartzeko baliabide gisa ikasle guztien eskola arrakasta bultzatzea.

Helburua	Jarduera orokorra	Ekintza kodea	Ekintza	Adina	Beste helburuetarako ekarpena
3.1. Bai ikasgela barruan bai kanpoan dauden laguntza programak (eskola laguntzako programak, eskolaz kanpokoak, gizarte lantegi hezitzaileak eta abar) indartuz eta behar diren baliabide materialez eta giza baliabidez hornituz eskolako errendimendua eta arrakasta bultzatzea.	3.1.1. Eskola eta hezkuntza laguntza	3.1.1.1.	Ikasten badakizu?/¿sabes estudiar? ikasteko tekniken praktika lantegiak		
		3.1.1.2.	MEDIALAB 1	8-16 urte	6.2./7.1.
	3.1.2. Eskola publikoen eraikinak mantentzea	3.1.2.1.	Eskola publikoen eraikinak mantentzea eta hobetzea	0-12 urte	
3.2. Aniztasunari arreta jartzeko programak indartuz eta desgaitasuna, portaeraren nahasteren bat edo ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei hezkuntza sistema egokituz eta erronka honetarako baliabidez hornituz desberdintasunari aurrea hartzeko baliabide gisa hezkuntza sistemak duen rola sendotzea.	3.2.1. Adingabeentzako eskola laguntza eta gizarte eta hezkuntza laguntza	3.2.1.1.	Eskolako gizarte laguntzako lantegiak	0-16 urte	1.1.
		3.2.2. Hezkuntzari laguntzeko eskolaz kanpoko ekintzak	3.2.2.1.	Hezkuntzari laguntzeko diruz lagundutako proiektuak	6-16 urte
3.3. 0 eta 3 urte bitarteko adingabeen ume arretarako sarea sendotzea eta neska-mutikoen garapenean duen onuragarritasunari garrantzia ematea.	3.3.1. Haur eskolak eraiki eta handitzea	3.3.1.1.	Zamakolako haur eskola eraikitzea	0-2 urte	
		3.3.1.2.	Sánchez Marcos haur eskola eraikitzea	0-2 urte	
		3.3.1.3.	San Ignazioko haur eskola handitzea	0-2 urte	
		3.3.1.4.	Iruartetako haur eskola eraikitzea	0-2 urte	

4. ildo estrategikoa. Adingabeak dituzten familiei haien garapenean txarrerako eragiten duten beharren estalduran lagunduz umeen desberdintasuna eta pobrezia gutxitzea.

Helburua	Jarduera orokorra	Ekintza kodea	Ekintza	Adina	Beste helburuetarako ekarpena
4.1. Adingabeak ardurapean dituzten egoera ahulenerako familiei euren oinarrizko beharrak estaltzera bideratutako programa eta prestazioen bitartez umeen pobrezia aurrea hartzea eta umeen desberdintasuna gutxitzea	4.1.1. Oinarrizko beharrei erantzuteko baliabide nahikoa ez duten familiei laguntzea	4.1.1.1.	Gizarte larrialdiko laguntzak	0-18 urte	
		4.1.1.2.	Udalaren laguntza bereziak	0-18 urte	
		4.1.1.3.	Caixa Haurren aldeko proiektua	0-18 urte	5.3.
	4.1.2. Baliabide nahikoa ez duten guraso bakarreko familiei laguntzea	4.1.2.1.	Pobrezia egoeran dauden guraso bakarreko familiak artatzeko programa	0-18 urte	5.1.
	4.2. Etxebizitza galtzeko arrisku egoerei arreta jartzea.	4.2.1. Baliabide nahikoa ez duten familiek bizilekua edo etxebizitza izan dezatela bermatzea	4.2.1.1.	Udalaren etxebizitza prestazio berezia	0-18 urte
4.2.1.2.			Etxetik kaleratuak artatzeko udal zerbitzua	0-18 urte	4.1.

5. ildo estrategikoa. Ume eta nerabeen ahultasun, arrisku eta babesgabetasun egoeren prebentzioa, arreta eta esku hartzea hobetzea.

Helburua	Jarduera orokorra	Ekintza kodea	Ekintza	Adina	Beste helburuetarako ekarpena
5.1. Arrisku egoeren detekzio goiztiarra bultzatzea, bai eta gizarteko esku hartze hezitzaile eta psikosozialen bitartez eta komunitateko baliabideekin koordinatuz familiaren babesa bermatzeko umeen babesgabetasun egoeren prebentzioa, balioespena eta arreta ere bultzatzea.	5.1.1. Gizarte eta hezkuntza programak	5.1.1.1.	Gizarte-hezkuntza eta komunitate-arloko esku-hartze programa (PISECO)	0-18 urte	5.2.
		5.1.1.2.	ZIRKILU adingabeen zentroa	0-11 urte	5.2.
		5.1.1.3.	INURRI adingabeen zentroa	0-6 urte	5.2.
		5.1.1.4.	Eskola absentismoaren prebentzio, detekzio eta kontrol programa (EAP)	3-18 urte	3.1.
		5.1.1.5.	PISEKALO programa	0-18 urte	5.2.
		5.1.1.6.	Bilbo Zaharreko ume eta gazteen laguntasun programa (Bakuva elkarte)	0-18 urte	5.3./6.1.
